



Langile txiro nahi gaituzte



**ENDIKA ALABORT
AMUNDARAIN**
EKONOMIALARIA

Lanaren bitartez bizitza duin bat izatea posible da? Herrialde batek bere burua garatutzat hartzen badu, erantzuna agerikoa da: posible eta premiazkoa izan beharko litzateke. Hala dio Europako Gutun Sozialaren 4. artikulua, onartzen baitu langileek ordainsari nahikoa jasotzeko eskubidea dutela, langileei eta haien familiei bizi-maila egokia emateko. Europako Kontseiluko Eskubide Sozialen Batzordeak proposatutako definizioaren arabera, soldata “nahikoa” batez besteko soldata garbiaren %60 da, gutxienez. Euskal Herri penintsularraren kasuan, kopuru hori gutxi gora behera 1.200 eurotan zehaztu da.

Hegoaldeko lau lurraldeetan gutxieneko soldata 950 eurotara mugatu da, Europako Gutun Sozialak ezartzen duen kopurutik urrun. Gutxieneko soldata hori ez igotzeko, patronalek “lanaren produktibitatea” aipatu dute, honi lotu behar zaiola; baita akordioaren bitartez egin behar dela ere, abenduaren amaieran Confefaskeko buru den Zubiaurrek esan zuenez. Berezia da patronalen jarrrera, gauza batzuentzako akordioaren beharra baitago, akordioaren definizioa beren onespina denean. Beste enpresari batzuek aipatu dute gutxieneko soldataren igoerekin ezin izango dutela lanpostu askorik mantendu. Enpresari jaun-anderea: irabaziak handitzeko miseriazko soldatak ordaindu behar badira, agian negoziak ez da errentagarria. Ez eko-

Enplegu bat izanda,
ezin da onartu
pobreziatik ezin
irtetea. Lan erreformek
langile txiroen kopurua
izugarri handitu dute

nomikoki, ezta sozialki ere. Ezin dugu ahaztu langile asko ez direla gutxieneko soldatara iristen ere, behartuta lan jardunaldi murriztagoak egiten baitituzte, astean 15, 20, 25 ordu lan eginez. Azpimarratzekoa gehienak emakumeak direla. Horrez gain, nabarmentzekoa da lana produktibitatearen arabera ordaintzea esplotazioa handitzeko eta soldata are prekarioagoa bihurtzeko tresna dela.

Aldi berean, pandemiak argi utzi du zeintzuk diren ezinbesteko enplegu eta lanak: garbitzaileak, osasun arlokoak, prekarizatutako zerbitzuak, zaintzak... Zaintza barik ez baita posible gure ekonomiak funtzionatzea. Lan hauek egiten ez badira, akabo edozein enpresaren jardura; baina, edo ez dira ordaintzen (zaintzak), edo soldata baxuena dutenen artean daude (garbitzaileak, telefono operadoreak, dendetako langileak, eta abar). Pandemian agerian geratu den lo-

gika erabiliz, goi karguek zenbat kobratu beharko lukete? Eta ezinbestekoak diren lan hauetan dihardutenek?

Enplegu bat izanda, ezin da onartu pobreziatik ezin irtetea. Lan erreformek langile txiroen kopurua izugarri handitu dute: enplegu prekarioak, edozein momentutan oso merke kaleratzeko arriskuarekin eta askotan lan jardunaldi ez osoan. Horrelako bi soldatekin, agian hilabete amaierara eskas helduko gara, handitzen doan alokairua ordaindu ostean. Ezin duguna onartu da lan egin eta pobreziara kondenatuta egotea.

Baina enpresari asko honekin oso pozik daude, lehen bost pertsonak egiten zuten lana orain bik egiten baitute, aurreko soldata bera jasotzen. Langabeziaren beldurra leku guztietara zabaldu da, agerian dagoelako behin behineko enplegu erregulazio espedienteen ostean, askotan kaleratze kolektiboak helduko direla, kaleratzea oso merke baita. Horregatik da hain handia patronalen erresistentzia gutxieneko soldata handitzea aipatzen denean.

Lan egiten duen pertsona bat ezin dugu miseriara kondenatu. Enpresa eredu nagusiak eta gure gizarte ereduak hori egiten du, tamalez. Ez dago inor salbu: langilea bazara, etorkizuneko langile txiroa izateko aukera gero eta handiagoa daukazu. Horregatik gutxieneko soldata duinen beharra. Bizitza duin bat izateko gutxieneko elementua baita. ●